

## 2.2. Euskal Autonomia Erkidegoko errepide planaren gai den sarea

Planaren Gai den Sarea errepide multzoak osatuta dago. Bertan sartutako errepideek, trafikoaren garrantzia kontutan hartuta, Lurralde Historikoak elkarrekin edo mugako Autonomia Erkidegoetako errepideekin lotzen dituzte.

Planaren Gai den Sareari dagozkio Lehentasunezko Intereseko Sarea deitutako sarea eta Oinarrizko Sarearen zati bat. Beste ibilbide batzuen artean honakook daude: Mesetarako sarbideak, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko konexioa, eta Euskal Herriaren eta Ebro Haranaren artekoa, Erlaitz Kantabriarrarekiko harreman-errepideak, eta, barruko ardatz garrantzitsu bezala, Durango-Bergara-Beasain zeharkako ardatza.

Haren zehaztapena Errepide Plan Orokorren Lege Araupetzaileak egin zuen. 1989ko maiatzaren 30eko lege hori 1991ko azaroaren 8ko Legeak aldarazi zuen. 2. Errepide Planean hura aldaraztea ez da egokitzat hartu. Edozein kasutan, aldarazpen hori Lege lerrunarekin egin beharko litzateke.

Planaren Gai den egungo Sarearen barruan aipamen berezia merezi dute trafiko-ibilbide nagusien gaineko Europar Akordioan (AGR 1975; Geneva 1985) zehaztutako nazioarteko ibilbideei esleitutako errepideek. Euskal Herriari dagokionez, errepide horiek honakook dira:

- E-70 ibilbidea: A Coruña - Oviedo - Bilbo - Donostia - Bordele, Euskal Herriari A-8ari esleitu. Errepide hori Behobiatik El Haya-ra doa.
- E-80 ibilbidea: Lisboa - Coimbra - Burgos - Donostia - Pau, Euskal Herriari Aramiñonerainoko A-lari, Aramiñondik Donostiarako N-lari eta Donostiatik Behobiarako A-8ari esleitu.
- E-05 ibilbidea: Glasgow - Donostia - Madril - Sevilla - Algeciras, E-80aren ibilbide berari esleitu.
- E-804 ibilbidea: Bilbo - Zaragoza - Bartzelona, Bilbotik Zanbranarako A-68 autobideak jarraitutako ibilbideari esleitu.

Etorkizunean, eta errepide-plan honetan programatutakoarekin bat etorririk, era berean, E-70 ibilbidea Txorierritik pasatzen den N-637aren bitartez egingo da; eta E-05 eta E-80, Gasteiztik Eibarrerako A-laren bitartez (Maltzaga).

## 2.2. Red Objeto del Plan de Carreteras del País Vasco

La **Red Objeto del Plan** está formada por el conjunto de carreteras que, atendiendo a la importancia de los tráficos, enlazan los Territorios Históricos entre sí o con carreteras de Comunidades Autónomas limítrofes.

Pertenece a la Red Objeto del Plan toda la red denominada Red de Interés Preferente y parte de la Red Básica. Entre otros itinerarios están los accesos a la Meseta, la conexión de Gipuzkoa con Navarra, y del País Vasco con el Valle del Ebro, las de relación con la Cornisa Cantábrica, y como importante eje interior, el eje transversal Durango-Bergara-Beasain.

Su definición fue realizada por Ley Reguladora del Plan General de Carreteras, de 30 de Mayo de 1989, modificada por Ley de 8 de Noviembre de 1991, y no se ha considerado oportuna su modificación en el 2º Plan de Carreteras, modificación que debería, en cualquier caso, hacerse con rango de Ley.

Requieren mención especial dentro de la actual Red Objeto del Plan, las carreteras asignadas a los itinerarios internacionales definidos en el Acuerdo Europeo sobre los principales itinerarios de tráfico (AGR 1975; Ginebra 1985), y que en el País Vasco son:

- Itinerario E-70: A Coruña - Oviedo - Bilbao - San Sebastián - Burdeos; asignado en el País Vasco a la A-8, desde Behobia hasta El Haya.
- Itinerario E-80: Lisboa - Coimbra - Burgos - San Sebastián - Pau; asignado en el País Vasco, a la A-1 hasta Armiñón, N-1 desde Armiñón a San Sebastián y A-8 desde San Sebastián a Behobia.
- Itinerario E-05: Glasgow - San Sebastián - Madrid - Sevilla - Algeciras; asignado al mismo itinerario que el E-80.
- Itinerario E-804: Bilbao - Zaragoza - Barcelona; asignado al recorrido seguido por la autopista A-68 entre Bilbao y Zambrana.

En el futuro, y de acuerdo con lo programado en este Plan de Carreteras, el itinerario E-70 estará constituido también por la N-637 a su paso por el Txoriherri y los itinerarios E-05 y E-80 a través de la A-1 entre Vitoria-Gasteiz y Eibar (Maltzaga).



2.2 KOADROA. Planaren Gai den sarea, sare moten eta lurralde historikoen arabera

CUADRO 2.2 Red Objeto del plan por tipos de red y territorios históricos

Km. Km.	Araba Álava	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi Guztira Total País Vasco
Autopistak Autopistas	62	86	92	240
Lehenasunezko interesekoak Interés preferente	141	145	158	444
Oinarrizkoak Básica	114	112	100	325
Guztira Total	316	343	350	1.009





**MAPA 2.2. RED OBJETO DEL PLAN. CLASIFICACIÓN**

- VITORIA-GASTEIZ**
- TOLOSA**
- Lekio**
- Carreteras
- Puertos de Montaña
- A-100 Códigos Carreteras
- Enlaces de las Autopistas de Peaje

- AUTOPISTAS**
- RESTO DE LA RED DE INTERÉS PREFERENTE**
- RED BÁSICA**